BESTELAKO XEDAPENAK

INDUSTRIA, TRANTSIZIO ENERGETIKO ETA JASANGARRITASUNAREN SAILA

4914

EBAZPENA, 2026ko azaroaren 3koa, Industria, Trantsizio Energetiko eta Jasangarritasuneko Arabako lurralde-ordezkariarena. Honen bidez, Asparrenako udal-mugartean (Araba) «Asparrena» proiektu fotovoltaikoari dagokion espedientea artxibatzea erabakitzen da.

Espediente zk.: 01GEY 202300032

AURREKARIAK

2023ko uztailaren 6n, Magna FV, SL enpresak eskatu zuen aurretiko administrazio-baimena Asparrenako udalerrian (Araba) «Asparrena» eguzki-planta fotovoltaikoaren proiekturako.

2025eko abenduaren 1ean, Industria, Trantsizio Energetiko eta Jasangarritasuneko Arabako lurralde-ordezkariaren ebazpenaren bidez, Asparrenako udalerrian (Araba) «Asparrena» izeneko 4 MW-ko eguzki-instalazio fotovoltaikoaren proiektuari aurretiazko administrazio-baimena, eraikitzeko administrazio-baimena eta onura publikoaren deklarazioa eman zitzaizkion (2026ko urtarrilaren 16ko EHAA, 10. zk., eta 2026ko urtarrilaren 21eko ALHAO, 9. zk.).

2026ko urriaren 26an, Magna FV SLk eskatu zuen 01GEY 202300032 administrazio-espedientea artxibatzeko eta gordailututako bermeak itzultzeko baimena emateko, 23/2020 LEDaren 1.2 artikuluan eta 1183/2020 EDaren 23.6 artikuluan xedatutakoaren arabera, txosten estrategikoa kontrakoa izateagatik proiektua izapidetzen jarraitu ahal izatea bideraezina zela ikusita; ingurumen-txosten estrategikoa aurkeztu du, Arabako Foru Aldundiko Ingurumenaren Iraunkortasunerako Zerbitzuak emandakoa, non agerian uzten baita proiektua ez dela egokitzen hirigintza-plangintzara eta lurralde-antolamenduko plangintzara.

ZUZENBIDEKO OINARRIAK

Industria, Trantsizio Energetiko eta Jasangarritasuneko Arabako Lurralde Ordezkaritza da espediente hau izapidetzeko eta ebazteko organo eskuduna, Industria, Trantsizio Energetiko eta Jasangarritasunaren Sailaren egitura organikoa eta funtzionala ezartzen duen abenduaren 3ko 410/2024 Dekretuaren 20. artikuluan xedatutakoaren arabera.

Espediente hau izapidetzean, martxoaren 31ko 48/2020 Dekretuan (energia elektrikoa ekoitzi, garraiatu eta banatzeko instalazioak baimentzeko prozedurak arautzen dituena) eta abenduaren 9ko 21/2013 Legean (ingurumen-ebaluazioari buruzkoa) eta abenduaren 9ko 10/2021 Legean (EAEko ingurumen-administrazioari buruzkoa) ezarritako aginduak bete dira.

Energia elektrikoaren garraio- eta banaketa-sareetarako sarbideari eta konexioari buruzko abenduaren 29ko 1183/2020 Errege Dekretuaren 23.6 artikuluak ezartzen duenez, instalazioa baimentzeko organo eskudunak gordailututako bermearen exekuzioa salbuetsi ahal izango du, baldin eta sarbide- eta konexio-baimenen iraungipena administrazio publiko baten txosten edo ebazpen batek instalazio hori jartzea galaraztearen ondorio bada eta hark hala eskatzen badu.

Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 94. artikuluaren arabera, interesdunek atzera egin ahal izango dute beren eskaeran, edo, ordenamendu juridikoak debekatzen ez duenean, uko egin ahal izango diete beren eskubideei. Era

berean, adierazten du Administrazioak erabat onartuko duela atzera egitea edo uko egitea, eta amaitutzat emango duela prozedura, salbu eta, prozeduran hirugarren interesdun batzuk pertsonatu ondoren, horiek prozedura jarraitzeko eskatzen badute, atzera egitea edo uko egitea jakinarazi eta hamar eguneko epean.

Aipatutako lege-xedapenak ikusita, eta oro har zein zehazki aplikatzekoak diren gainerakoak oinarri hartuta, Industria, Trantsizio Energetiko eta Jasangarritasuneko Arabako lurralde-ordezkariak.

EBAZTEN DU:

Lehengoa.– Magna FV SLk aurkeztutako artxibo-eskaera onartzea, Asparrenako udalerrian (Araba) 4MWko «Asparrena» eguzki-planta fotovoltaikoaren proiektuari dagokionez eta Euskal Autonomia Erkidegoko Diruzaintza Nagusian gordailututako bermeak itzultzeko agintzea.

Bigarrena.– Dagokion espedientea artxibatzeko agintzea.

Ebazpen honek ez du administrazio-bidea amaitzen, eta bere aurka gora jotzeko errekurtsoa jar daiteke Deskarbonizazio zuzendariaren aurrean, hilabeteko epearen barruan, Ebazpen hau jakinarazi eta hurrengo egunetik aurrera zenbatzen hasita, eta hori guztia Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkiadeari buruzko urriaren 1eko 39/2015 Legearen 121. eta hurrengo artikuluen arabera.

Vitoria-Gasteiz, 2026ko azaroaren 3a.

Industria, Trantsizio Energetiko eta Jasangarritasuneko Arabako lurralde-ordezkaria,
JAVIER AIZPURU OCHOA DE ERIBE.